

...eta

# kittO!

862 zkia.  
2013-X-11



## Positiboan



ATZEGI

## gizarteratzen

### EUKi


ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
preziorik onenean



URRIAREN  
11tik  
20ra



# Eibarko Liburu eta Disko AZOKA

asteazken

UNTZAGAN

asteburua

11.00 - 14.00

*Eleberriak / %10eko deskontuak*  
*Euskal diskagintza / Aukerako liburuak*

11.00 - 14.30

17.00 - 21.00

17.00 - 21.30

## A TZERA BEGIRA, AURRERA EGITEKO euskaldunon iraganaz eta etorkizunaz

### Urriak 16, asteazkena:

**XXI. mendeko euskaldunak: nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada! hitzaldia**

Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan



Kike Amonarriz

### Urriak 23, asteazkena:

**Atzera begira, aurrera egiteko solasaldia**

Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan



Lorea Agirre Unai Iturriaga

Antolatzaileak:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA 1963-2013



Babesleak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



# ASTEAN ESANAK

"44 langile hil dira Qatarren 2022an han egitekoa den munduko futbol txapelketako egituretan beharrean zirela. Lan baldintza horietan jarraituz gero, 4.000 izango dira estadioak-eta eraikitzen hilko diren langileak, ia guztiak atzeritarrak: esklaboen kondizioetan bizi diren nepaldarrak eta indiarrek, batez ere"

(THE GUARDIAN, EGUNKARIA)

"Epaileek bertsoz bertso epaitzen dute, baina entzuleek sentipenen arabera epaitzen dute. Hala ere, kritikatu egin behar dira, futboleko epaileak kritikatzaren diren legez. Dena den, oso gutxitan dauka publikoak arrazoia"

(ONINTZA ENBETA, BERTSOLARIA)

"Janari prestatuak hartzen dituztenek loditzeko joera handiagoa dute. Tuperrei dagokionez, plastiko finez egindako edukiak baztertu egin behar dira. Hori bai, janari toxikotasun aldetik, kristalezkoak dira hoberenak. Platerean janda, hobeto"

(CRISTINA PEREZ, DIETISTA)

"Churchillek oso diskurtso motzak egiten zituen, esaldi motz eta sakonekin. Egun batean esan omen zuen: 'Gaurkoa oso luzea izango da, gaur ez dut izan-eta astirik lantze'."

(ZALDIERO, MARRAZKILARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

JOTERA EGIN.- Ganaduak adarka egiteko keinua egin. Gaztelarazko 'derrotar'. "Kontu ibilli iskuarekin, jotera egitten dau eta".

KINKIÑA JO.- Amaitu, hustu. 'Terminar, apurar, ultimar'. "Milla erriali kinkiña jo detsa, gaurko ferixara juan biharrakin".

KISKETE JO.- Kriskitin egin, atzamar puntekin hotsa atera. 'Castañetear los dedos'.

## eskutitzak

### GURE ESKU DAGO GIZA-KATEAREN ALDEKO DEIA

Datorren astelehenean, urriak 14, arratsaldeko zapietan, bilera bat egingo da Kulturealean, Gure esku dago giza-katea egitasmoaren inguruan. Giza-katea Durango eta Iruña lotu nahi ditu, 2014ko ekainaren 8an, Konponbidea: erabakitze eskubidearen leloa-

rekin bat egiten dugun guztion laguntzaz. Antolakuntzan parte hartu nahi duten guztientzat irekita dago bilera, baita egitasmoaren inguruko informazioa jakin eta zabaldu nahi dutenentzat ere.

**HERRI BATZORDEA**

### JARDUNALDI MIKOLOGIKOEN 15. EDIZIOA

Eibarko Klub Deportiboak antolatzen dituen Jardunaldi Mikologikoak 15. edizioa biziko dute hurrengo asteburuan, hilaren 19an eta 20an. Ohikoari jarraituta, zapatu goizean mendi irteerak antolatu dira Euskal Herriko hainbat basotara (Ikastolako eta Haur eta Gurasoena), biak ere 08.15etan irteeraren direnak Ego-Gainetik. Egunean jasotako espezieak klubera eramango dira, bere aukeraketa eta sailkapenerako, Aranzadi Zientzia Elkarteko partaideek eskainiko dien laguntzarekin. Perretxiko bilketa egunak perretxiko jaiaren egunari lagako dio lekua eta domekan

bezperan jaso eta aukeratutako espezieen erakusketara egingo da Toribio Etxebarria kalean (euria bada, udaletxeko arkupeetan). Produktu mikologikoak eta gastronomikoak izango dira ikusgai eta, gainera, perretxiko dastatze bazkaria egingo da Deporren (15 euro helduak eta 7 umeak).

Haur eta Gurasoen mendi irteeran parte hartzeko, izena eman beharko da aurretik Deporren bertan, martitzen edo eguenean. Eta bazkarirako ere komenigarria da aurretiaz apuntatzea.

**EIBARKO KLUB DEPORTIBOA**

### HERRIRA AURRERA!

Herri honen kontrako eraso guztien artean, egungo testuinguru kontutan izanik hau ulergaitzena delako, gu ere **Herrira** gara.

**KOKEIN**

Betetzen ez dituzten legeak sortzen dituztelako, ni ere **Herrira** naiz.

**ASIER SERRANO**

Herri honen etorkizuneko normalizazioa eta elkarbizitzarako, salbuespen neurri guztien indargabetzea ezinbesteko baldintza delako, ni ere **Herrira** naiz.

**MIREN NARBAIZA (NAPOKA IRIA)**



Euskara Elkarte

**ARGITARRAZTARTEA:** ...eta kito! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuarte. 20600 Eibar  
**TELEFONORAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.  
**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /  
publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,  
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERAK:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.  
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.  
**PUBUZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Eibarko Atzegi  
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.150 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).  
**COPYRIGHT-A:** ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679  
("...eta kito!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETTA)**



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak  
diruz lagundutako aldizkaria**

## Move proiektuak Armerixan bisitan

Martitzen goizian harrera ofiziala egin zetsen Armerixa Eskolan Turkia, Bulgaria eta Poloniatik Move proiektuari esker etorritako 50 bat irakasleri. Jose Luis Novoa zuzendarixak ongietorria egiñ eta jarraixan, Kezkako dantzariak aureskua dantzatu zetsen. Goiz osua ikastetxia eta bertako Eskuadra Zaharra museua bisitatzen

emon eben. Move proiektuan hainbat herrialdetako ikastetxe eta enpresak hartzen dabe parte eta, programari jarraituta, udabarrixan Armerixa Eskolan "Industria Automatizazioa eta Robotika" ingelesez ikasten diharduen zortzi ikasle, hiru irakaslerekin batera, Bulgariako Smolyan hirixan egon ziran proiektuko beste partai-



Ongi etorri aureskua ekindu zetsen bisitarixeri. SILBIA HERNANDEZ

diekin hartuemonak sendoranz ordezkarixak gaur etxera zten. Astelehenian ailegau zibueltauko dira.



Bixar Bilbon LOMCE-ren kontra egingo dan manifestaziñora deittu eben antolatzailliak. SILBIA HERNANDEZ

## Eibarko LOMCE Ez taldiaren aurkezpena

Aurreko asteko eguenian aurkeztu eben Untzagan Eibarko LOMCE Ez taldia. Presentaziñuan irakorri ebenari jarraituta, "hezkuntza erreformarako Wert-en legiak edo LOMCE-k ekarriko dabena ikusitta, horrek proposatzen dabinari aurre egiñ eta ezezko biribilla emoteko Eibarren biharrian jardungo dabena taldia osatzeko premiña eguala pentsau eta horretan hasi giñan". Asmuetako bat herriko hezkuntz-komunidade osuak taldian parte hartzia da eta aurreko asteko agerraldixan ikastetxietako ordezkaritza zabalaren bablesa euki eben mahaixan jarritakuak. Atzo bertan onartu eben erreformari ezetz esateko arrazoiak irakorritta, bixar Bilbon "Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki! LOMCE-ri ez!" goiburuarekin 17.30xetan Jesusen Bihotzetik urtengo dan manifestaziñora juatera animau zittuen herrittar guztiak.



## Ezkontza azokia bueltau zan

Aurreko asteburuan Ezkontza Azokia egin zan Armerixa Eskolan. Bestiak beste, Kantabria jatetxiak, Krabelin hotelak, Marina Berrik, Debako Aisiak, Lasa jatetxiak, Imanol DJ-xak, Joseba Casasola argazkilarixak, Josu Torrealday Estudiok, Fasprint inprentak, El Atelier Nupcial-ek, Mujika sastrerixak, Mari Asun loradendiak, Solera Eibarresak, Unzaga Plaza hotelak, Alai estetikak, Mago Sun-ek, Coro Cano illeapaintzailliak, Sara Nuevas abeslarixak eta Eibarbus eta Alconada autobus enpresak hartu eben parte bertan, ezkondu nahi dabenenadako euren eskintzarekin.

## Pobrezia Zero kanpaiña

Urtero lez, hillaren 17xan (datorren eguenian) pobreziaren kontrako eguna gogoratuko da mundu maillan. Eibarren, Eibarko El-karkidetzarako Mahaixak deittuta, ikastetxe, GKE eta bestelako alkartietako ordezkarixen partehartzia eukiko dabena ekitaldixarekin "beste mundu bat posible dala" gogoratzeko ekitaldixa egingo da 12.00xetatik aurrera Untzagan.



Eguenian, hillaren 17xan, ospatuko da beste behin gure herrixan pobreziaren kontrako eguna.



## Herrirari alkartasuna erakusten

Aurreko asteko astelehenian Herrira-ren kontra egindako operaziñuaren harira, beste herri askotan lez Eibarren be Herrira-ri alkartasuna adierazteko ekitaldixak egin ziran

egunero. Barixakurako antolatutakuak batu eban jende gehixen eta, alkarretaratziak gaiñ, herriko musikari, bertsolari eta txalpartarixak be egon ziran parte hartzen.

## 1958an jaixotakuen bazkarixa



Zapatu eguardixan Untzagan batu eta taldiaren erretratu egixi eta gero, ondo baiño hobeto emon eben eguna aurten 55 urte bete edo beteko dabenak. Unzaga Plazan bazkaldu eban argazkiko taldiak eta, handik urtenda, bakotxak nahibeste luzatu eban jaixa.

## autuan

### 1953-AN JAIXOTAKUAK

Aurten 60 urte beteko dittuenak (1953an jaixotakuak) urriaren 19xan egingo dabe bazkarixa Juan nahi dabenak astelehenerako, urriaren 14rako emon biharko dau izena, Kutxabankeko 2095 5035 00 91 12891259 kontuan 80 euro sartuta (dirua sartzian izen-abizenak argi adierazi).



### 5. KONTENEDORIA

Mankomunidiak kanpaiña barrixari ekin detsa, jendia bosgarren kontenedoria (marroia) soziedietan erabiltzera animatzeko. Alkarte gastronomikuetan sortzen diran hondakin gehixenak organikuak diranez, hórrexek birziklatzera animau nahi dittue soziedietako bazkidiak. Horretarako billeria deittu dabe martitzenerako (hillaren 15erako), 19.00etan Portalean eta soziedietako bazkidieri bertara juateko eskatzen detse.

**eitek**  
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

**Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena**

[www.eitek.net](http://www.eitek.net)

**Jorge Imaz Bolinaga**

---

**Komunitateen Administrazioa**

---


Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.  
Tlf. 943 53 03 03  
[imazjorge@hotmail.com](mailto:imazjorge@hotmail.com)

asteko  
%2,2  
datua

igoko dittue taxi-tarifak.  
Astegunetan holan geratuko da  
2014an: banderia bajatzia 5'01  
euro, kilometro bakoitzeko  
1'25 eta itxoiten emondako  
ordubetia, barriz, 16'78 euro.  
Gabetan eta asteburuetan  
5'46, 1'36 eta 17'27 euro pagau  
biharko dira, hurrenez hurren.

## Joxi Hernandez Armerixako irakaslia istripuan hil da

Labennen (Frantzia) aurreko zapatuan gertatutako istripuan hil ziran hiru mendizale donostiarretako bat, Josean "Joxi" Hernandez, Armerixa Eskolako irakaslia zan. Ikastetxeko ordezkariak heriotzen barri euki eta jarraixan "alkartasun eta maittasun guztia" bidali zetsazen irakasliaren "famelix, adiskide eta lankidieri". Amaran bizi zan irakasliarekin batera, istripuan Andoni Areizaga (Donostiko Suhiltzaillien sargentua) eta Iñaki Cuellar mendizaliak eta Bernard Doumerq furgonetako gidarixa be hil ziran. Club Vasco de Camping alkarteko kidiak ziran hiru mendizaliak Txilen egindako espediziñotik bueltan etozen euren furgonetiak A-63 errepidian, Capbreton inguruan istripua izan ebanian.



Joxirekin beste hiru mendizale hil ziran istripuan.

## Errebalgo auziko informaziñuaren gaiñeko epaixa

Epaille batek oin dala gitxi emondako sententziak diñuanez, Errebalgo auzian Kontu Epaitegixaren fiskalizaziñuaren behin-behiñeko txostenian jasotako informaziñua udalal Bilduko ordezkari xeri eskatutakuan emon bihar zetsela. Sententzia Bilduko ziñegotzi batek bere egunian ipiñittako demandaren harira dator. Konfidentzialtasuna zaintze aldera ziharduela gaiñeratu eben". Miguel de los Toyos alkatiak barixakuan bertan emon eban sententziaren inguruko bere eritzixa: "Udalak epaillaren sententzia errespetau eta ontzat emoten dau, baiña ez dator bat bertan esaten danarekin".



## "Kinto" gaztienak edarto pasau eben

Aurreko zapatuan lehelengoz batu ziran 1986xan jaixotakuak, alkarrekin bazkaldu eta eguna jai giruan pasatzeko. Sagardo Egunaren aitzakixarekin Untzagan egiñ eben poteua eta, taldiaren erretratu (pankarta eta guzti!)

etara eta gero, Arraten bapo bazkaldu eben. Handik bueltan, trikitilarixak la-gunduta tabernarik taberna ibilli ziran eta, oiñdiok parrandarako gogua zekenak gaztetxian, Sagarrafter jaixan segidu eben.

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

**FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeuskadi taldea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

**AUTOBUS** zerbitzua

**URRIAK 20**

**IRTEERA:** Ego-Gainetik **08.00** etan

**14** eurotan

**BUELTA:** **18.30** etan

**TAUPADAZ BAT EGIN! TUTERA**  
NAFARROA OINEZ '13

**J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA**  
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA



*Datorren urriaren 22an, martitzenean, ...eta kitto! Euskara Elkarteak Illunabarrian programaren barruan antolatuta, txokolate-dastaketa egingo da 19.00etatik aurrera elkartearen egoitzan. Horretarako Tolosako Rafa Gorrotxategi gozogile ezaguna gonbidatu dute. Dastaketan parte hartzeko izen-ematea astelehenean zabaldu zen, baina atzorako toki guztiak bete ziren. Saioan parte hartuko duten hamabost lagunek txokolatearen inguruko bitxikeria eta bestelako sekretuak Gorrotxategiren eskutik zuzenean ezagutzeko aukera paregabea izateaz gain, azalpenei laguntzeko tolosarrak ekarriko dituen txokolateak jateko tarte ere izango dute.*

**RAFA GORROTXATEGI** (gozogilea)

## **“Txokolatea beti egon da modan”**

**- Nolakoa izango da Eibarren eskainiko duzun saioa?**

Sarrera modura, txokolate eta kakaoaren historiari lotutako hainbat pasadizo eta bitxikeria azalduko ditut, produktu honi lotutako hamaika kontu interesgarri daude-eta. Azalpenei laguntzeko horrelakoetarako apropos lehortutako kakao-fruituak eramango ditut, fruituaren barruan dauden babak nolakoak diren erakusteko. Babak ehotzean lortzen den pasta, ezpainetarako erabiltzen dugun kakao-koipea eta dastaketan parte hartzen dutenek jateko txokolate sorta ere eramateko asmoa daukat.

**- Gorrotxategiren eskaintza begiratzen hasiz gero, harrizkeko moduko txokolate zerrenda dago. Une bakoitzerako aproposa den txokolaterik badago?**

Horretan norberaren gustuak agintzen du, bakoitzari txokolate jakin batzuk beste batzuk baino gehiago gustatzen zaizkiolako. Egia da azken urteotan txokolate mingotsak gero eta harrera hobea duela, besteak beste sendagileek azukrearekin gozotutakoa baino osasuntsuagoa dela esaten hasi zirelako. Bestela, txokolate klase ezberdinak sortzeko fruitu lehorrekin

eta beste osagarri batzuekin jokatzen joaten gara. Nik, esate baterako, gauero, oheratu baino lehen, 80-100 gramorekin egingo txokolate katilukada hartzen dut.

**- Modaren eraginez, loditzen duen edo-zer ez jateko mezua entzuten dugu sarritan. Txokolate-salmentetan eraginik izan du horrek?**

Ba txokolateari ez dio bereziki kalterik egin. Izan ere, txokolatea beti modan egon dela esan dezakegu. Txokolatearen izen zientifikoa "Theobroma cacao" da eta grekotik datorren theobromak "jainkoen edaria" esan nahi du. Beraz, nola pentsatuko dugu jainkoen edari modura

definitutakoak kalte egin dezakeenik? Gainera, azken aldian gero eta gehiago aipatzen dira kakao eta txokolateak dauzkaten onurak. Bat aipatzearen, txokolate mingotsak te berdeak edo ardoak baino propietate antioxidante gehiago dauzkala diote adituek.

**- Gorrotxategi txokolateak internet bidez erosteko aukera ematen duzue zuen webgunean. Nora saltzen duzue gehien?**

Eskaera gehienak Euskal Herriatik bertatik jasotzen ditugu, alde handiarekin, gainera. Hemendik kanpora ere saltzen dugu, Madril, Andaluzia eta estatuko beste hainbat tokitara, baina, zalantza barik, eskaera gehienak gure ingurutik jasotzen ditugu.

**- Museoa ere eskaini diozue txokolateari. Gorrotxategi familiakoek txokolateari eskainitako bizitzak daukazue, belaunaldiz belaunaldi ofizioari eutsi diozue-eta...**

Ez pentsa, nire belaunaldian anaiak eta biok nahiko berandu erabaki genuen honetan jardutea, umetatik laguntzen genuen, baina lanerako bokazioa soldadutzatik bueltan ailegatu zitzaigun. Berrez nik argazkilaritza eta diseinua ikasi nituen, pentsa!



# + OSASUN GODA

## Dentistak

T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57



**AMAIA**  
HORTZ KLINIKA

**ARAT** Hortz Klinika  
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA



Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...



TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Telf. 943 20 18 51

**bista eder**  
clínica dental - hortz klinika



Bista Eder, 19 - Bajo 20600 Eibar 943 70 00 82  
R.P.S 53/13

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnua: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hortz-Klinika  
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskua 943 70 00 90

RPS 04/02



**IRAZABAL**  
clínica dental

Iribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.  
Tfnua. 943 20 85 52  
www.clinicalrazabal.com

**hortz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Telf. 943 70 23 85



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**  
RPS 195/11

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkitzu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA



- \* Fisioterapia / Erreperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnua. 943 20 34 46 Tfnua. 943 74 33 74

## Estetika klinika



**abontza**  
clínica estética  
Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

HEMEN ZURE TOKI  
izan nahi baduzu  
...  
te




## Fisioterapia



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
ARRAQUETA, 20  
TEL: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.  
OSTEOPATIA  
NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

## Okulistak



**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera  
943 20 19 82



**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologí Klinikia

• Presbiziaren kirurgia.



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiroprodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)



**ELENA AIZPUN**  
124 kolegiatu zenbakia  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943, 799746

**PODOLOGOIA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOIA**

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak



**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia  
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina  
PSIKOLOGOIA  
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa  
- Patricioner P.N.L.  
- Master P.N.L.

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa




Oscar Mondragon Lili  
Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943206823 eta 686859023

KIA

...  
deitu 943-206776  
telefono zenbakira

Astelehenian presentau eben Eibarren Atzegiren aurtengo sensibilizaziño kanpaiñaia, alkartiak Arane kalian (Txomo etxian) dakan egoitzan. Adimen urritasuna dakenen aldeko Gipuzkuako alkartiak egindako presentaziñuan Maite Narbaiza, Carmen Simon, Mertxe Urbina, Fernando Irusta eta Aloña Agirre Atzegiko ordezkariak jardun eben berbetan, Klub Deportiboko mendi taldeko Edu Uribekin batera. Euren berbetan, "Gipuzkoa guztian ikusiko dan kartela aurten hamen aurkeztia tokau da. Kartelari laguntzen detsan izenburua 'Atzezin guztiok dugu papera. Aurkitu zeurea!' da eta mezu hori da, hain zuzen be, gizartian zabaldu nahi doguna, gutariko bakotxak egunero egitten dittugun gauza txikixenetan be adimen urritasuna dakenak gizarteratzen laguntzeko aukeria dakagula".



**G**ure esku dago adimen urritasuna dakenen ingurua atseginagua izatia. Hori aditzera emon nahi dabe aurtengo kanpaiñarekin. Gaiñera, aurkezpenian esan eben moduan, "gizartia danok osatzen dogun aldetik, holan jokatuta gureztat be gizarte hobia" izatia lortuko dogu. Atzegikuak azaldu eben moduan, "adimen urritasuna dakenak, bestiok lez, jendiaren maittasuna eta laguntasuna sentidu nahi dabe. Kalian doiazenian agur esatia, edo egitten daben gauzeri erreparatzia, holako keiñuak bihotzez eskertzen dittue eta holako jarriera eukitzia oso inportantia da, gizar-

tian euren tokixa dakela sentitzen laguntzen detselako".

Batek baiño gehixagok pentsauko dau: "Eta zelan lagundu neike nik horretan?". Ba, zalantza guztiak argitzen laguntzeko, egin leikiazan hainbat gauzarekin zerrendia preparau dabe Atzegikuak: "Atzegiko aldizkari-ria etxian jasotzen dabenak, adibidez, irakorri eta gero tabernaren batian laga leike, beste batzuk be irakorri deixen; edo Atzegik Facebook edo Twitterren sartzen dittuan edukixak lagunekin partekatu; kartelak pegatzen lagundu; alkartekuak norberan seme-alaben ikastetxiekin kontaktuan ipintzen lagundu, bertan hitzaldixa emote-

ra juateko; adimen urritasuna dakenak praktketan hartzen dittuen tokixen barri emon; lantzian behin, adimen urritasuna dakan baten batekin zinera juateko edo kafia hartzeko geratu; laguntzeko famelixarik ez dakenen errekauren bat egitten lagundu; jarduerak antolatzen dittuan talde edo alkarteko kidia bazara,

#### **Euren premiñetara moldatzia**

Laguntasuna eskintzeko moduetako bat normalian egitten diran jardueretan Atzegiko kidien partehartzia posible egitteko bidia zabaltzia litzake eta horren adibide garbixa Galdaramiñoko mendi lasterketaren azken ediziñuan bertan ikusi geinke. Lasterketia antolatzeko biharrian jarduten daben Edu Uribek asteleheneko ekitaldixan kontau ebanez, "Urkiko jaixetan antolatzen dogun mendi lasterketan aurten beste proba bat preparau genduan, bereziki Atzegikuendako eta benetan be oso esperientzia politta izan zan. Lasterketia egin zan egunian eurixa geratu barik bota eban, baiña halanda be eurak edarto pasau eben. Antxixiketean ibilli barik, Atzegikuak oiñez bete eben ibilbidia, eta antxixiketean zebizeneri animuak emoten ibilli ziran denpora osuan, txaluak eginda eta garraxika. Proba amaitzian irabazlieri sari-



**Atzegiko lan-taldea izan genduan aurten Urkiko jaixen egitarauan Galdaramiñoko lasterketia antolatze-lanetan. LEIRE ITURBE**

**MAIDER MARTIN** (Txolarteko begiralia)

## "Ondo pasatzen dotelako juaten naiz Txolartera"

Adimen urritasuna dakenen bizimodua atsegiñagua izatia gu danon esku daguala gogoratu nahi deskue aurtengo kanpaiñarako aukeratu daben mezuarekin. Bakotxak ahal daben neurrixan zeozer egitteko aukeria dakala beti, keiñurik txikixenak be laguntzen dabela. Baiña laguntasunari neurrixa ipintzeko eskatuko balebe, duda barik mailla gorenian ipiñi biharko genduke euren bizitzaren zati bat adimen urritasuna dakenekin batera, musutruk, boluntarixo modura pasatzia erabagi daben asko eta asko. Euretako bat zapatu arratsaldiak Txolarteko lagunekin pasatzen dittuan Mainer Martin gaztia da.



- Zergaitik animau ziñan Txolarteko begirale izatera?

Amak urtiak daroiaz Txolartian laguntzen eta 16 urte bete nittuanian nik be lagundu neikiala pentsau eta astegunetan, hiru arratsaldetan Lagun Taldera juatera animau nintzan. Gero, 18 urterekin unibersidadian hasi eta ordutegi kontuak tartian, astegunetan laguntzia gatxagua egitten jatanetz zapatueta Txolartera juaten hasi nintzan

eta gaur egunian, 23 urterekin be hor segitzen dot, eurekin batera oso gustora nabillelako.

- Holako sensibilidadia eukitzeko adimen urritasuna dakan batenbat gertu dakazue?

Ez, ez dakagu gertuko iñor. Amak egunkarixan irakorri eban laguntzeko jende billa zebizela eta holan, beste barik animau zan. Honetan jarduteko ez da aparteko ezer bihar, nahikua da laguntzeko gogua eukitziakin.

- Eta zelan pasatzen dituzue zapatu arratsaldiak?

Ba eguraldixaren arabera denpora gehixago edo gitxiago emoten dogu lokal barruan. Normalian 24 bat lagun etortzen dira Txolartera eta bost begirale ibiltzen gara eurekin batera: foballera jokatu, buelta bat emon... plana aldatzen juaten gara. Hori bai, pintxua eta edateko zeozer hartzia derrigorrezkoa da, ez dabe barkatzen!



xak banatzen be lagundu eben. Korrikalarixak esan zeskuenez, Atzegiok oso giro politta sortu eben. Azken batian, Atzegiko lagunak oso pozik hartu eben parte ekitaldixan eta korrikalarixak be pozik eguazen, bestietan baiño giro polittagua egon zalako. Jarduerak pixkat moldatzia, besterik ez da bihar adimen urritasuna dakenak parte hartzeko aukeria izateko eta holakuak benetan eskertzen dittue".

Astelehenian hasi eta gaur arte probintzia guztian 8.000 kartel ipiñi dittue den da, kale eta bestelako tokixetan, Atzegiuen bizimodua erosuagua izateko gure inplikaziñua zuzenian eskatzen. Eta kanpaiñaren gaiñian gehixago jakin nahi dabenandako [www.atzegi.org/aurkituzerepapera](http://www.atzegi.org/aurkituzerepapera) bloga sortu dabe. Nahixago dogun moduan, guk betetzeko paperik egokixena aukeratzeko dei egitten deskue kartelak eta, zelan egiñ entzungor danon mesederako izango dan holako eskaerari?

**f**  
**Funeuskadi Eibar**  
 SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27      Bulegoa: Bidebarrieta, 6

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**  
 ☎ 943 82 15 39 · [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

**GRUPO Funeuskadi**  
 El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugaleta · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·

ISO 9001  
 SERVICIO CERTIFICADO  
 Fij. Tanatorios y Crematorios

**GIDA PRESTATZEN DIHARDUGU...**

**Agertuko zara, ezta?**

**eibar GIDA 2014**      **DEITU...**

943 20 67 76  
 943 20 09 18

**Gaur 20.30etan kontzertua emango du Coliseoan Andres Egiguren Orkestrak, Musikaldiaren 21. edizioaren barruan. Pedro Palacin eibartarraren eskutik orain dela bost urte jaiotzen orkestrak Iruñeko Disei talde liriko-klasikoaren laguntza izango du. Taula gainean 20 eta 24 urte bitarteko 25 bat musikaririk, aurrekoetan baino gutxiagok jardungo dute. Aukeratutako errepertorioarekin musika klasikoan oinarrituta edozein publikorentzat erakargarriak diren gauza berriak egiteko hamaika aukera dagoela erakutsi nahi dute, Laura Zudaire musikariak esan digun moduan.**

**- Nolakoa izango da gaurko kontzertua?**

Zati bitan egituratuta dago: lehenengo zatian orkestrak jardungo du, Schuberten 5. Sinfonia pieza zoragarria eskaintzen. Bigarren zatian, orkestrarekin batera, Disei taldeak jardungo du. Bietan jardungo dute, lehenengo zatian orkestrarekin batera, biolina jotzen; eta bigarren zatian, berriz, Disei taldearekin, kideetako bat naiz-eta. Klasikoak eta berriak, gauza biek bat egingo dute kontzertuan. Izan ere, orain zazpi hilabete Eduardo anaiarekin eta Iñigo Mikeleiz, Juanjo Bordes, Chicho Sanz eta Cristina Sevillanorekin batera sortutako taldea berezi samarra da.

**- Oraindik ere askok uste dute musika klasikoak derrigorrez aspergarria izan behar dela, baina zuk ez duzu gauza bera pentsatzen, ezta?**

Askorentzat klasikoak aspergariaren sinonimoa bada ere, gero orkestra bat Iron Maidenen abestia jotzen entzun eta harritu egiten dira. Ohiko errepertorioetik aldendu eta jendeari gustatzen zaizkion taldeen abestiak eskaintzen badizkiozu, musika klasikoaren inguruko euren iritzia goitik behera aldatzen da.

Zinean, publizitatean... klasikoak sarri erabiltzen dute.

**- Orkestran zure moduko musika ikasle gazteek dihardute. Zuk zer ikasi duzu?**

Musika arloko lizentziatura bi amaitu ditut, biolina eta pedagogia. Baina orkestrako beste musikari guztiek oraindik ez dituzte ikasketak amaitu; ni salbuespena naiz. Hala ere, orain honetan beharrez jarduteko modurik ez dagoenez, ikasten jarraitzen dut: 2. mailarako masterra egiten nabil. Penagarria da musika moduko ikasketa gogorak amaitu eta lanerako aukerarik ez izatea. Nik, adibidez, 16 urte eman ditut musika ikasten.

**- Horrelako orkestrak nolako garrantzia dauka musikari gazteentzat?**

Handia, hasteko zuk ikasi duzuna egiteko bidea ematen dizulako. Instrumentuaren arabera egoera ezberdinak daude: biolina jotzen baduzu, aukera gehiago daukazu orkestra batekin jarduteko; baina oboea jotzen duen norbaitek, horrelako orkestra egon ezan nekez izango luke horrelako aukerarik. Bestalde, zuzendaria oso atsegina eta gertukoa da eta musikariak oso pozik gaude horrelako aukera bikaina izateagatik.



Laura Zudaire  
(MUSIKARIA)

**"Klasikoarekin musika erakargarria egin daiteke"**

MULTIABENTURA  
UBALEKUAK  
NAFAR PIRINIOAN

**URRATSAK**  
udalekuak

www.urratsak.com • info@urratsak.com

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK**  
ITZULTZEN DITUGU,  
euskaratik gaztelerara,  
gazteleratik euskarara,  
eta ingelesetik euskarara.

**ZERBITZUA**  
elkartea@etakitto.com

# Untzagak gainezka egin zuen eguna



**Giro ezin hobea izan genuen zapatuan, #SagardoEguna arrakastatsua izan zen aurten ere. Gainera, lehenengo aldiz, iladak izan genituen goizez ere tiketak erosteko orduan. Umeen txokoak gainezka egin zuen eta ...eta kitto!k aurreikusitakoa baino denbora gehiago izan zen zabalik. Arratsaldean Untzaga lepo bete zen eta sagardo guztia agortu zen. Hau guztia kontutan izanda, eskerrak eman behar dizkiegu Untzagara joan ziren guztiei, baita hau guztia antolatzen laguntza eskaini ziguten guztiei: Gorenak sagardotegiei, lanera etorritako ...eta kitto!ko bazkideei, Untzaga inguruko tabernariei, Ondo Nai eta Peña Txinbera elkarte gastronomikoei.**

## Eskerrik asko guztioi! TXO0000TX!!!





13 sagardotegi eta 2.200 botila



Sukaldeko lantalde fina



Trikitilarien doinuetara



Sagardoaren "kandela efektua"



2013-X-5



**Iaz egin genuen moduan, eguneko kontakizuna egiteko laguntasun handia izan genuen twitter-en. #SagardoEguna erabilia, askok eta leku oso desberdinetatik hartu zuten parte. Zozketa eginda, @radiojeta izan da irabazlea; Txinan lanean dagoen eibartarrak lagunek bidalitako argazki bat txiotu zuen. Beraz, 13 sagardotegietako botilek, 8.000 kilometro inguru egingo dituzte aurten.**





Asier Serranoren

## kolaborazioa

## Zoriona eta maitemina

Zuek ez zenuten logelako sabaian konstelazio umelak bildumatzen dituen emakume hau zoriontsu zenean ezagutu. Nik bai. Eta zinez diotsuet zinez zela zoriontsua gauzez badiako moilan soineko zuriz jantzita itsasoko ipar haizearekin dantzatzen zuenean. Barre egiten zuen motiborik gabe, eta antxetek bere izena oinatzekin hondarrean idazteko ez bazen ez zuten eteten beraien hegaldia. Hondartza amaigabetik trostan zaldi beltz zamalka ezinak gerturatzen zitzaizkion bere laztanen xerka, eta farozain zaharrak emakumearen zoriontasun guzti hura argizatzen zuen ilargi bikiaren lupaz. Belarrira eramaten zituen itsaskurkuiluek baino ez zizkieten beste munduetako ahotsak ekartzten, eta orduan ere zoriontsua zen emakumea, beste hizkuntza haiek zer esan gura zioten jakin gabe ere zoriontsua zen emakumea.

Zuek logelako sabaian zirkulu ustelduak zenbatzen dituen emakume hau baino ez duzue ezagutzen. Zuek emakume maitemindu bat baino ez duzue ezagutzen.


## musika

Bide Ertzean  
"77"

Bederatzigarren lana kaleratu berri du Tolosako hirukoteak. Hamabi kantuz osatutakoa, digipack batean aurkeztu dute. Euren esanetan, gaia hurrengo da: "1977. Euskal Herria. Askatasuna, maitasuna, berdintasuna bizi eta gozatu nahi duen gazteria... 40 urteko gau beltzaren ondoren, orduko gazte belaunaldi haren ahalegina ez zen hutsala izan". Gaztelupeho Hotsaren ziguiluekin kaleratu da.

Infekzioa  
"Irrintzi"


Bartzelonatik datorren d-beat zarata zikina. Abesti guztiak euskaraz, euskal topikoei buruzko hitzak gehienak, baita gai politikoagoak ere. Euskal garrasirik onena gure arbasoen irrintzia dela diote. Mörgheadeko Joni fuzz gitaran, Final slum Warreko Raul baterian nahiz ahotsean, eta Eye of Croweko Judith baxuan. Martxoan grabatu eta aurkeztu zuten, Txunpa-Txunpa Recordsen eskutik. Entzungai Infekzioa.blogspot.com helbidean.

Fermin Etxegoien  
"Zinegotzia"

Egun bakarrean gertatzen da kontakizuna, 2013ko ekainaren 6an, eta hala hasten da: "Eskumako zinegotzia berandu esnatu zen Euskal Herriaren independentzia bere eskutik etorri zen egunean...". Fikziozko eleberria bada ere, errealitateari eta gaurkotasunari heldu dio egileak. Irakurleak intriga handiz jarraituko du kontakizuna, lehen unean aurkezten zaion egoerara nola iritsiko diren jakin nahian.

Eduardo Galeano  
"Ispiluak"

Kazetari eta idazle uruguaiar ezagunaren *Ispiluak*. *Mundu ia ororen* historia-liburua itzuli du Xabier Alegriak, "itzulpenlanak ohiko dituen zailtasunei beste batzuk gaineratu dizkiolarik kartzelak". Botereak baztertutako gertakizun, ikuspuntu edo protagonistengan dago jarrita begirada... ikusmolde kritiko, tonu umoretsu eta zehaztasun zientifikoarekin.



## literatura

## LIBURU SALDUENAK

- 1.- "Mussche" Kirmen Uribe
- 2.- "Twist" Harkaitz Cano
- 3.- "Martutene" Ramon Saizarbitoria
- 4.- "Paradisua eta katuak" Bernardo Atxaga
- 5.- "612 euro" Jon Arretxe
- 6.- "Kristalezko begi bat" Miren Agur Meabe
- 7.- "Alkasoroko benta" Mikel Taberna
- 8.- "Arma, tiro, bamm!" Joan Mari Irigoien
- 9.- "Adiskide bat nuen" Joxean Agirre
- 10.- "Egia esan" Peru Magdalena





Gipuzkoako txapelketako irabazleak.

## Dianakoak onenen pare El Castillo kotoan

Santa Cruz del Fierroko El Castillo kotoan jokaturako ehi-za txikiko Gipuzkoako txapelketan, Dianako ordezkariak maila bikaina erakutsi zuten. Horrela, beteranoetan Jose Luis Gisasolak txapela jantzi zuen berriro, Iñigo bere semea hirugarrena izan zen se-

niorretan eta Aimar Gonzalez azpitxapeldun geratu zen juniorretan. Aurretik euren lurraldeetan sailkatutako 50 bat ehiztari izan ziren Arabako lur horietan eta podiumekoek azaroaren 3an jokaturako den Euskadiko txapelketan parte hartzeko sailkatu dira.

## Urki, 1 - Armagiñak 2 Unben jokaturako lehiak

Lehenengo Erregional mailako neurketan, Armagiñak gure herrian aurtan osaturako talde berriak gol batengatik irabazi zion Urkiri. Multzo bereko Eibartarrak-ek, bestalde, 3-2 gainditu zuen Soraluze eta gora egin du sailkapenean. Preferente mailan diharduen Eibartarrak-eko talde nagusiak ezin izan zuen puntorik eskuratu Tolosan eta Orioko gailentzen ahaleginduko da asteburu honetan, sailkapeneko azken postuetatik alde egiteko.

## Asier Cuevas herri lasterketan izena emateko aukera

Proba berria dugu herrian, urriaren 26an lehenengo aldiz jokaturako dena. Hurrengo urteetan jarraitzeko asmoa dute I. Asier Cuevas herri lasterketako antolatu-



zaileek eta zapatu horretan, 17.30etan, egingo den proban parte hartu nahi duzuen guztiok [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) helbidean izena eman dezazue, 10 euro ordainduz.

Klub Deportiboko atletismo batzordekoek, bestalde, denboraldi berrirako entrenamenduekin hasi dira dagoeneko Unben. Interesatuok bertara joatea besterik ez duzue, 17.15etatik 19.00etara, eta han galdetu.

## Domekan Debabarreneko BTT martxa Mintxetan

Bihar itxiko da bertan parte hartzeko izena emateko epea. Bosgarren aldiz jokaturako den BTT martxa hori 09.00etan hasiko da, betiko moduan, Mintxeta kirolgunean dagoen Debabarreneko BTT Zentroan. Debegesak antolatzen duen probak bi ibilbide izango ditu: 25 kilometrokoa bata eta 45ekoa bestea.



### U R R I A

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

### A Z A R O A

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

### A B E N D U A

					1	
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					



Euskara Elkarte

Urkizu pasealekua 11, solairurtea  
20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 20 09 18  
[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)  
[www.etakitto.com](http://www.etakitto.com)

Egin zaitez  
...eta kitto!ko  
bazkide!



2 0 1 3 k o  
u d a z k e n e k o  
k u l t u r  
e s k a i n t z a

...eta kitto! Euskara Elkarte

## Eibar FTko ezkeraldeko zentralaren bila

75. urtemugako hamaikako ideala aukeratzeko bideak aurrera jarraitzen du eta, eskumako zentralaren ondoren, aste honetan ezkeraldeko zentrala hautatzeko ordua heldu da. Sei jokalarik osatzen dute oraingoan bazkideen eta akzio-dunen esku dagoen zerrenda, betiko moduan aukeraturakoaren izena 1940-2015@sdeibar.com helbidera bidaltzeko.



Javier Olaizola eta Eduardo Berriozabal.



Antonio Ansola, Eduardo Berriozabal, Roberto Olaizola, Javier Olaizola, Iban Fagoaga eta Txema Añibarro dira entral horiek.

### Errege Kopa

Hirugarren kanporaketari dagokion Eibar eta Alcorconen arteko partidua datorren eguenean, hilaren 17an, jokatu da, 19.30etan hasita. Partidu horretarako sarreraren prezioak honakoak dira: bazkideak, 10 euro (infantilak, 5) eta ez bazkideak 30 euro (infantilak, 10). Horrez gain, bazkideek beste sarrera bat lortzeko aukera izango dute, 20 eurotan.



Gimnasta federatuek lan ona egin zuten Izar leku torneoan.

## Bikain hasi dute denboraldia Ipuruako gimnastek

Zapatuan Donostian jokaturako Izar Leku torneoan, Espainiako txapelketarako prestatzen diharduten gimnasta federatuak oso maila altua eman zuten: I. mailako taldeak maza hiru parekin eta aro birekin egin zuten ariketa, zilarrezko domina eskuratzeko;

eta oinarrizko infantil mailako taldeak hiru aro eta bi zintekin hartu zuen parte, brontzezkoaren jabe eginez. Azken hauek Guadalajaran azaroan egin beharreko estatuko txapelketan izango dira, talde nagusiak txapelketa hori abenduan jokatu duen bitartean.


## Urbat-eko waterpolistek 1. mailan joka dezakete

UPNA talde nafarraren tokia hartu dezake Urbat-Urkonen waterpolo taldeak Euskal Herriko 1. mailan. Davide Cerchiren taldea igoratik gol bakarrera geratu zen azken denboraldian eta aukera izan dezake oraingoan urtean ezin izan zuena bulegoetan lortzeko. Jokaturako lagunarteko bietan maila erakutsi du taldeak.




### URRIA

Urriak 20, domeka  
Nafarroa Oinez-era (Tutera) autobusak. 08.00etan Ego Gaietik.  
Urriak 22, martitzena  
Txokolate-dastaketa, Tolosako Rafa Gorrotxategiren eskutik.  
19.00etatik 20.30etara ...eta kitto!-n.



### AZAROA

Azaroak 4, martitzena  
Idazlearekin Harixa Emoten. Aitziber Etxeberriaren "Tango urdina" liburua. 19.00etan liburutegian.  
Azaroak 8, barixakua  
San Andres bertso-paper lehiaketako epea amaitu.  
Azaroak 15-16, barixakua eta zapatua  
Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoak, Unibertsitate Laboralean.  
15ean (17.30 eta 19.30) eta 16an (16.30 eta 19.00). 8€.



Azaroak 19, martitzena  
Andoni Egañaren hitzaldia: "Zer moduz doa euskara?". 19.00etan ...eta kitto! Euskara Elkartean.

### ABENDUA

Abenduak 1, domeka  
San Andres bertso-jaialdia. 18.00etan Portaleko areto nagusian.  
Abenduak 5, eguena  
...eta kitto! astekariak 25 urte.

### Abenduak 10, martitzena

Idazlearekin Harixa Emoten. Arantxa Urretabizkaiaren "3 Mariak" liburua. 19.00etan liburutegian.  
Abenduak 17, martitzena  
Koktel-ikastaroa 19.00etan ...eta kitto-n. Izen-ematea abenduaren 2tik 13ra. 5€ (...eta kitto!-ko bazkideek 4,50€)  
Abenduak 21, zapatua  
Olentzeroren Etxera bisita  
Gurasoak Berbetan egitasmoentzat.  
Abenduak 31, martitzena  
Kirolkitto!, Kirol sari banaketa. 12.00etan.

...eta horrez gain:  
Barixakuero ...eta kitto! astekaria  
Hilero Txikitto! umeen aldizkaria  
Astero Berbetan mintzapraktika taldeak; baita ere guraso eta dendarientzat  
Itzulpenak eta diseinu lanak  
www.etakitto.com

## Iñigo Unanue Espainiako txapeliduna triatloi luzean

Aurreko asteburuan Calellan jokatuak triatloi luzeak Espainiako txapelketan izan ziren Javi Murcia eta Iñigo Unanue eta, biek bikain jarduteaz gain, Unanuek bere mailako txapela jantzi zuen. Handik gertu, Bartzelonan, Garmin triatloia jokatu zen: azken horretan gure herriko lau ordezkari izan ziren,



maila bikainean jardun zuten Edu Oiartzun, Alayn Ayala, Xabi Arrieta eta Igor Etxeberria.

## Aitor Arakistain pilotoak bereganatu zuen Urbasako igoera



Silver-car S2 barketarekin nagusitu zen Escuderia Eibarko pilotoa Urbasako igoeraren 3. edizioan. Aitor Arakistainek ize-na eman zuten beste 69ei hartu zien aurrea eta, garaipen horri esker, bigarren dago monoplazen sailkapenean Euskal Txapelketa amaitzeko beste proba bi bakarrik falta direnean.

Bihar, bestalde, Euskal Txapelketako rallye zaharrena jokatu da. 58 parte-hartzaile izango dira Gernikako XX. edizioan, tartean gure herriko eskuderiako zazpi ordezkari, Jorge Rodriguezek eta Asier Arrillagak osatutako taldea lidergoari eusten saiatuko da.

## Euskal Herriko zeharkaldia amaitu da aurtengoz

Klub Deportiboko mendizaleek egiten diharduten Euskal Herriko zeharkaldiaren 12. etapa osatu zuten zapatuan, Beintza-Labaien eta Belate batuz. Horrekin aurtengo egutegian zegoen azken etapa burutu zuten

hara joandako 40 lagunek -"perretxikozalez inguratuta", eta 2014rako lagako dituzte hurrengo etapak. Dena dela, urtea amaitu arte izango dira bestelako irteerak, tartean 19/20ko asteburuan egingo diren Jardunaldi

Mikologikoak eta azaroaren 9an Zugarramurditik Etxalarrera egingo duten txangoa, tartean Infernuko Errotatik eta Atxuria menditik pasatuz.

### Amak mendian

Irailaren 29an gurasoen talde batek umeekin egin zuen irteera Aralarren dagoen 904 metro dituen Ausa-Gaztelu mendira. Argazkian, amen kuadrila mendi gainean.



## berriak

### HERRI-LASTERKETAK

Domekan jokatuak Donostiako Hiru Mendietan, Mara-Mara taldeko Igor Fernandezek 19. postuan amaitu zuen. Hendaia-Itik Irunera doan Txingudi Korrikan, bestalde, hainbat eibartar izan ziren: Cristina Loeda (87.a), Fermin Sebastian (183), Ane Ziaran (317) eta Javier Ziaran (439).

### SASKIBALOA

Katu-Kale saskibaloia taldeak hainbat berrietasun izango ditu denboraldi berriko. Horrela, azken denboraldian pibot postuan izan zuten hutsunea betetzeko, Gorka Lopez bueltatu da taldera eta, horrez gain, Borja Iglesias fitxatu dute. Base postuan, Urko Uranga eta Ruben ahaleginduko dira Iñigok eta Fitok lagatako hutsunea betetzen.

### PILOTA

Gaur pilota partiduak izango dira Astelenan, 19.15etatik aurrera. Benjamin eta alebin mailako agunarteko bi izango dira, Deporreko pilota eskolakoekin artean.



## Jokalari berrien bila eskubaloian

Eibar Eskubaloiak jardunaldia antolatuko du domeka goizeko, alebin mailan eskubaloian jokatu nahi duten neska-mutikoentzako. Deialdia LHko 5. eta 6. mailakoentzat da eta hitzordua Ipurua kiroldegian izango dute: 5. mailakoek 09.00etan egon behar dute kiroldegiko pista nagusian eta 6.ekoek 10.00etan.



**JON ARRETXE** (idazlea)

## "San Frantzisko auzoak harrapatu egin nau"

*Liburu eta Disko Azoka atzo zabaldu zuten eta, horren aitzakiarekin, bihar Jon Arretxe idazlea bertan izango da, 19.00etatik aurrera Erein-eko stand-ean "612 euro" eleberria sinatzeko prest. "19 kamera" eleberriarekin hasitako bideari jarraitu dio bigarren lan honetan ere, Toure sasi-detektibearen inguruko trama Bilboko San Frantzisko auzoan girotuta. Euskal Herriko "ghetto" handienak bizi duen errealitate gordina eta umorea konbinatuta, irakurleak hasieratik harrapatzen dituen istorio bizi horietakoa sortu du.*

### - Zeren inguruan idatzi duzu azken eleberri honetan?

Aurreko nobelarako sortu nuen Toure sasi-detektibearen pertsonaiari eutsi diot eta bera izango da protagonista nagusia. Us-tezko anaia bapatean agertu eta, Afrikako abegiaren izenean, bere burua etxe-pateran harrera egitera behartuta ikusten du. Hor hilketak eta bestelako kontuak nahasten joango dira. Aurreko eleberrian pertsonaiari eman nion garrantzia; orain tramari.

### - Zergatik "612 euro" izenburua? Zer egiten dio erreferentzia?

Batetik, laguntza premian zeudenei gutxieneko errenta hori ematen zitzaiezen nik liburua idatzi nuen sasoian. Baina, hortik harago, esangura sinbolikoa ere badu, liburuan agertzen diren pertsonaia gehienak biziraupenaren muga horretan bizi baitira.

### - "19 kamera" aurreko eleberria ere, San Frantzisko auzoan girotu zenuen. Auzoak harrapatu zaitu ala?

Erabat. Aurreko asteburuan hango jaiak ospatu zituzten eta ederto pasatu nuen. "19 kamera" idazteko auzoan bertan instalatu nintzen, etxe bateko bigarren pisuan eta, idazten nuen bitartean, leihotik kanpora, kalean gertatzen zen guztia ikusten nuen. Bigarren lan honetarako liburu dendarik batek bere etxea eskaini zidan. Etxe biak kale berean daude: ez da aldaketa handirik izan.

### - Eta zer ikusi duzu leihotik begiratzean?

Denetarik: gauza onak eta txarrak. Auzoan baztertutako jende mordo bizi da, heroina eguneroko kontua da... Baina oso auzo bizia da, baztertutako jendeari laguntza emateko elkarte eta GKE askok bertan egoitza daukatelako. Jende interesgarria dago eta eurek kontaktutakoekin asko ikasi dut: zelako giroa zegoen heroina auzora ailegatu aurretik, prostituzioa bera nola aldatu den...

### - Hurrengo lana ere San Frantziskon girotzeko asmoa daukazu?

Bai, horretan hasita nago. Izan ere, saga batek gutxienez hiru liburu izan behar ditu. Aurretik idatzitako nobela beltzekin alderatuz gero, "19 kamera" idaztean estiloa aldatu dut, umoreari tarte handia eskainita eta, neurri batean, horrelako harrera ona izateko arrazoiak bat hori izan daitekeela uste dut.



*Narbaizak eta Mujikak zortzi abestik osatutako diskoa egin dute.*

## Napoka Iriaren lan berria kalean

Urtebeteko lana eta gero, aurreko asteaz geroztik Napoka Iriaren "Arnasten ikasteko berriz" izenburuko lana entzungai dago interneten napokairia.bandcamp.com gunean. Zortzi abestik osatzen duten diskoa interneten bertan erosi eta jaisteko aukera dago. Diskoaz gain, David Zabalak zuzendutako bideoklip berria ere estreinatuta zuten orain egun batzuk Miren Narbaizak eta Gorka Mujikak osatutako taldeak. Asteburu honetan ekingo diote lan berria aurkezteko zuzeneko emanaldiekin: lehen kontzertua Donostian, Lugaritz Kultur Etxean emango dute gaur 21.00etan (sarrerak 5 eurotan salgai). Napoka Iriarekin batera, taula gainean grabazioan parte hartu duten beste musikari batzuk jardungo dute gaur: Iban Urizarrek (Cafe Teatro, Andraikan, Bizarra) tronpetarekin lagunduko die eta Felix Buffek (Willis Drummond, Tin Trails, Napoka Band...) bateria joko du



*"Zure baitan" abestiaren bideoklipa ikusgai dago interneten.*

## Su Ta Gar-en disko berria ia prest

Egun gutxi barru ikusiko du argia Su Ta Gar taldearen lan berriak, "Bizirik gaude" izenburukoak, baina diskoa kaleratu bitartean aste honetan "Zure baitan" abestiaren bideoklipa interneten, YouTube-n taldeak duen kanalean ikusteko moduan ipini dute. Lau minutuko iraupena duen bideoklipa Luis Jambrinak ekoiztu du eta irudiak Santi Cuartangok eta Garikoitz Diazek grabatu dituzte. Bideokliplean grabazio estudio bateko giroa eta taldearen irudi historikoak tartekatuta dituzte. Izan ere, aurtan Su Ta Gar taldeak lehen kontzertua eman zuela 25 urte beteko dira. Taldearen hamargarren diskoa hamar abestirekin osatu dute eta lan berria ezagutzera emateko bira hilaren 19an hasiko da.

## Hemezortzi kontzertu urte amaierara arte

Urritik abendura arte Eibarren eskainiko diren musika emanaldiak aurkeztu dituzte aste honetan. Urtea amaitu bitartean hemezortzi kontzertu eskainiko dira, "horietako sei Musikaldiaren barruan. Horiekin batera Patricia



Programa gaur bertan abiatuko da, Coliseoko kontzertuarekin. SILBIA H.

Krausek lan berria aurkeztuko du eta Norvegiako The Launderettes-en emanaldia hartuko du Portaleak. Musika eskaintza beste hainbeste emanaldik birliduko dute: besteak beste, organo kontzertu bi, Sostoa abesbatzak Verdi

eskainitako emanaldiak eta Cielito Musika Bandaren eta Usartza Txistulari Bandaren kontzertuak. Horrez gainera, Tolosako 45. Abesbatza Lehiaketara joango diren lau taldeen kontzertuak egongo dira. Lati-amerikako musikak ere

tartea izango du hiru eibartarrek osatutako Trio Medianoche eskainiko duen lehen emanldiarekin". Programa gaur bertan abiatuko da, 20.30etan Pedro Palacinek zuzendutako Andres Egiguren Orkestraren kontzertuarekin.

## Liburu eta disko azoka, hilaren 20 arte

Gaur zabaldu dute Untzagan hilaren 20ra arte martxan egongo den Eibarko Liburu eta Diska Azoka, literatura argitaratu diren lan berriekin. Betiko lez, azoka salgai dauden liburu eta

diskoak %10eko deskontuarekin erosteko aukera izango da. Euskadiko Liburu Ganbarak udalaren laguntzarekin antolatutako azoka egunero zabalduko dute, goizez 11.00etatik 14.00eta-

ra eta arratsalde 17.00etatik 21.00etara (asteburuan ordu erdi gehiago). Azokaren harira, bestalde, jarduerari bi egongo dira: bihar arratsaldean, 19.00etatik aurrera Jon Arretxe idazlea egongo da azokan, Erein argitaletxearen stand-ean, "612 euro" liburua sinatzen. Datorren asteko barixakuan (18an) musika eta literatura batuko dituen ekitaldia hartuko du Juan San Martin liburutegiak, 19.00etatik aurrera: Toti Martinez de Lezea idazleak publikoarentzat irakurtzen duen bitartean, irakurketa girotzeko Maite Itoizek musikarekin lagunduko dio.



Datorren asteko barixakuan irakurketa saio musikatu eskainiko dute Maite Itoizek eta Toti Martinez de Lezeak.

## laburrak

### URRIA KARRIKAN

Karrika tabernak hainbat ekitaldi antolatu ditu urrirako: gaur 23.00etan Occhi di Farfalla taldeak kontzertua emango du eta bihar, berriz, 19.00etatik aurrera Gaitzek jardungo du. Eguenean (17an) 22.00etan Napoka Iriaren txanda izango da. Hilaren amaiera arte musika emanaldi bana eskainiko dute Diswar, Moby Dick eta Kogollo Party Krew taldeek eta, egitaraua biribiltzen, pintxo-potea eta Azken Guda Dantza daude.

### KANTA USTEKABERI

Domeka eguerdian Cielito musika bandak Coliseoan emango duen kontzertuan Carlos Sanchez-Barba zuzendariak Ustekaberi eskainitako "Euskal Jaia", fanfarreak azken urteotan egindako lau moldaketaren bilduma (joko du Kortaturen "Sarri sarri", Skalariaken "Sólo vivir!", Alaitz eta Mainerren "Txanpon baten truke" eta Etzakiten "Egina") joko du.

### ERAKUSKETA CASANELLAN

Aitor Sologaiak musikiariaren erakusketa ipini dute ikusgai Casanella Studio (J. Gisasola, 16). Astelehenetik egunera bitartean (17.00-19.00) bisitatu daitekeen erakusketan musika-instrumentuak dekorazioan ere erabili daitezkeela erakutsi nahi dute.



**Izadi**  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
104,0 FM

**BARRIO autobusak eta mikrobusak**

www.autocaresbarrio.es  
info@autocaresbarrio.es

**MOBILA: 659 87 89 89**  
943 17 15 01 / Aldapa, 6 (ERMUA)

### ○ Euskarazko bikoizketa hiltorian

Sektoreak ia 200 profesional hartzen ditu eta desagertzeko zorian dagoela adierazi du. Hainbat protesta antolatuaz batera, salatzen dutenez, ez da soilik sektore baten etorkizuna kolokan dagoena, baizik hizkuntza normalizazio bide bat. Iaz 2008an bikoiztutako kopuru erdia bikoiztu zen eta gaur egun animaziozko serieak bikoizten dira bakarrik. Aurten, esaterako, bederatzi hilabetetan, bakarrik 100 ordu bikoiztu dira euskeraz eta, eritmo horretan, desagertzeko arriskua argia da. Iaz katalanera 2.000 ordu bikoiztu baziren, euskerara 400 besterik ez.

## euskararen txokoa

### ○ Euskarabildua jardunaldia Donostian

Urtebete pasa da azken biltzarretik eta hizkuntza eta teknologia berrien garapenean dihardutenek jomugan dute gaurko -urriaren 11ko- hitzordua. Donostiako koldo Mitxelena Kulturunean, *Euskarabildua* jardunaldiak egingo dituzte, aurten ikus-entzunezkoak ardatz hartuta. Argiak, Iametzak (Argiaren taldeko komunikazio enpresa teknologikoa) eta Ametzagaiñak antolatu dute jardunaldia. 2015erako aurreratu dutenez, pertsona bakoitzak Internetarako konexioa duten hiru gailu izango ditu batez beste eta segundoko milioi bat minutukoa izango da bideo kontsumoa.



## Damudot taldearen kontzertua

**Mallabiko Damudot taldeak gaur gauean kontzertua emango du Akats tabernan, 22.00etan.** Trash metal musika egiten duen taldea JonFlok (ahotsa eta gitarra), Polutok (bateria) eta Afrok (bajua) osatzen dute eta lehen diskoa, "Heriotza da bakea dakarren bakarra" izenburukoa Carlos Creator produktorearekin grabatu dute eta diskoari izena ematen dion abeslariari Su Ta Gar-eko Aitor Gorosabelen kolaborazioa izan zuten.

## Idazlearekin Harixa Emoten

Martitzenean Kirmen Uribe idazlea izan zen Juan San Martín Liburutegian Mussche nobelari buruz irakurleekin berba egiten eta, liburuaren komentatzearekin batera, euskal lite-

raturari buruz jarduteko aukera ere izan zuten han batutakoek. Aste honetakoa Idazlearekin Harixa Emoten, ...eta kitto! Euskara Elkartek eta liburutegiak elkarlanean antolatutako euskarazko irakurketa klubaren lehen saioa izan da eta hurrengo hilabeteetan ere horrelako beste saio batzuk egingo dira, hilean behin: azaroaren 4an Aitziber Etxeberriak "Tango urdina" komentatuko du eta abenduaren 10ean Arantxa Urretabizkaik "3 Mariak" liburuaren ingurukoak azalduko ditu. Irakurketa klubean parte hartzea doan da eta izena emateko liburutegira jo daiteke.



Kirmen Uribek Mussche liburuaren nondik norakoak kontatu zituen. MAIDER ARANBERRI

## Gaztelekurako maskota bila

Udaleko Gazteria sailak Indianokua gaztelekuarentzat maskota sortu nahi du eta, horretarako, lehiaketa antolatu dute. Parte hartu nahi duenak urriaren 27ra arteko epea izango du maskota sortu eta lehiaketara aurkezteko. Lanak euskarri gogor baten gainean zein formatu digitalean (JPG moduan gordeta, 300 ppp bereizmenarekin) entregatu beharko dira, kartazal itxian. Kanpo aldean egilearen adina idatzi beharko da eta barruan, berriz, izen-abize-



nak, helbidea eta telefono zenbakia adierazi beharko dira. Epaimahaiko kideek urriaren 31an esango dute zein den irabazlea eta saria kirol-denda batean gastatzeko erosketabonua izango da.

## Euskalduntzearen 4. mailako taldea Ermuan



Lehendabizikoz sortu da Ermuan Euskalduntzearen 4. Mailako taldea. Hizkuntzaren erabilera goren ere ikas daitekeelakoan, halako beharra duenarentzat aukera egokia da aurrerapausoak emateko. Ikastaroaren helburu nagusia euskara egoki eta zuzen erabiltzea da, bizitzako egoera guztietan. Ermuko Kaltxango AEK euskaltegian emango den ikastaroa 180 ordukoa da, aurrez aurre, urriaren 14tik ekainaren 3ra artekoa, astelehen eta martitzen arratsaldetan, 15 tutoretza ordurekin, urritik apirilera bitartean. Ikastaroa gainditzeak HABEren 4. mailako azterketa ofiziala egitea ahalbidetzen du. Informazio gehiagorako: kaltxango@aek.org eta 943171940.

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, OLATZ, aurreko barixkuan zure lau urtiak ondo baiño hobeto ospatu genduzen-eta.



Zorionak, ALAITZ, atzo 12 urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MADDI, domekan lau urte egingo dozuz-eta. Muxutxuak eta ondo pasau, etxekuen partez.



Zorionak, HIART, astelehenian lau urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, ITXASO, hillaen 2xan urtebete egin zenduazelako. Gurasuen, neba Alejandro eta etxekuen partez.



Zorionak, ALAZNE, atzo sei urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi-haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, IZARO, atzo bost urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MIKEL, hillaen 17xan urtebete egingo dozulako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ENARA Zufiria Prieto, gaur etxeko lorak 13 urte beteko ditte-eta. Ama, aitta eta Enekoren partez.



Zorionak, ELAIN, astelehenian hiru urte egin zenduaz-eta. Muxu haundixak etxekuen partez.



Zorionak, JUNE, gaur zure urtebetetze eguna da-eta. Segi oiñ arte bezain jator. Famelixaren partez.



Zorionak, INHAR, astelehenian hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixako danon partez.



Zorionak, EUGENIO eta MODESTA, bixar 50 urte beteko dozuz-eta ezkondu ziñaziela. Egun haundixa izango da guztiontzat. Famelixako guztien partez.



Zorionak, ANA eta JESUS, eta beste 25 urte betei deizuetela alkarrekin. Lagunen partez.



Zorionak, XABIER Arrasate, domekan zortzi urte egingo dozuz-eta. Etxeko guztien partetik!



Zorionak, URKO, domekan hiru urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat aitxixa Melki, amama M<sup>a</sup> Asun eta izeba Mireiaren partez.

## hildakoak

- Angeles Perez Carbajo. 83 urte. 2013-X-1.
- Mercedes Andia Mauleon. 94 urte. 2013-X-4.
- Jose Ugarte Arregi. 97 urte. 2013-X-8.

## jaiotakoak

- Beñat Arizmendiarieta Lazpita. 2013-IX-29.
- Urko Gallastegi Etxaniz. 2013-X-2.

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

12an: 17.00, 19.45, 22.30  
13an: 17.00, 20.00  
14an: 20.30

"Ahora me ves"

Zuzendaria: Louis Leterrier



(2 ARETOAN)

12an: 17.00, 19.45, 22.30  
13an: 17.00, 20.00  
14an: 20.30

"Mud"

Zuzendaria: Jeff Nichols



(ANTZOKIAN)

12an: 19.45, 22.30  
13an: 20.00  
14an: 20.30

"El mayordomo"

Zuzendaria: Lee Daniels




(ANTZOKIAN)

12an: 17.00  
13an: 17.00

"Aviones (Planes)"

Zuzendaria: Clay Hall



## BARIXAKUA 11

### INDIANOKUA

**16.30.** Dantza saioa. Indianokua gaztelekuan.

### UMEENDAKO ZINEA

**17.30.** "Los mundos de Coraline" filmaren emanaldia. El Corte Inglesean.

### KONTZERTUA

**20.30.** Andres Egiguren Orkestra + Disei. 7 euro. Coliseoan.

### KONTZERTUA

**22.00.** Damudot taldearen kontzertua. Akats tabernan.

## ZAPATUA 12

### 1963-AN JAIOTAKOAK

**12.00.** 1963an jaiotakoan jaia. Marina Barrenak egindako zapiak eta oroigarriak banatzea. Untzagan.

**13.00.** Luntxa eta trikitilariak (udaletxeko arkupeetan).

**13.45.** Argazkia.

**14.00.** Potea Ongi Etorri tabernan.

**15.00.** Bazkaria Unzaga Plaza hotelean. DJ-a.

**20.00.** Pintxo-potea Kultun.

**22.00.** Jaialdia Punto y Aparten.

### LIBURU AZOKA

**19.00.** Jon Arretxe "612 euro" liburu sinatzen egongo da Ereinen stand-ean. Untzagan

## DOMEKA 13

### KONTZERTUA

**12.30.** Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

### INDIANOKUA

**17.00.** Xake txapelketa. Indianokua gaztelekuan.

## MARTITZENA 15

### IKASTEN

**17.00 eta 18.30.**

Joskintza tailerra. Portalean.

### HITZALDIA

**19.00.** Bosgarren edukiontzia erabilerari buruzko hitzaldi informatiboa, Mankomunitatearen eskutik. Portalean.

### NORVEGIATIK

**19.00.** Norvegiako nobela beltzaren inguruko saioa, Lotte Katrine Tollefsen-en eskutik. Irakurketa klubaren lehen saioa: "La trampa de miel", Unni Lindellekin. Juan San Martin liburutegian.

### ASANBLADA

**19.30.** Eibarko Gazte Asanblada Berrixaren asanblada.

## EGUAZTENA 16

### IKASTEN

**09.11.** Mendi-ibilaldia, Portugalete-La Arena (Muskiz). Trenaren irteera Estaziñotik (Ardantzatik 09.12etan).

### TAILERRA

**18.30.** Zurrumurruen kontrako tailerra: Agustin Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria). Portalean.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### HITZALDIA

**19.30.** "Ginecología para adolescentes. Todo lo que debes saber y no te atreves a preguntar", Poliklinikako Leire Viguri doktorearen eskutik. Portalean.

## ikastaroak

### ✓ Ikastaroak hasi baino astebete lehenagora arte UEU.

- On line: "Geogebra aurreratua", "Krisia eta kudeaketa publikoa Euskal Herrian", "Kultura arteko hezkuntzaren garapena", "Moodle 2.3-ren oinarriko erabilera" eta "Ubuntu eta software libreria sarrera".

- Markeskuan: "Emozioak eta norberaren gaitasunak lantzen", "Escola libre eta demokratikoak: gizarte aldaketarako tresna eta gako", "Isiltasuna gelan", "Jendaurreko komunikazioa" eta "Sormen-tailer aurreratua". Informazioa: [www.ueu.org](http://www.ueu.org) eta 943 82 14 26 telefonoan.

### ✓ Urritik abendura arte

#### JABETZE ESKOLAKO IKASTAROK.

"Autodefentsa Feminista" (12 ordu). Urriaren 28ra arte. "La risa como recurso" (8 ordu). Abenduaren 2ra arte. Izen-ematea: Andretxean edo Portalean.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Noiz arte egongo zara itxaroten, bada? Pazientzia handia daukazu, baina zerbait lortzeko itxaropenak elikatzen du hori.

### TAURUS

Lurpean sartu eta hortik denbora batez irten barik egotea nahiko duzu. A zer nolako lotsa! Horrelakoak egitea pentsatzea ere...

### GEMINI

Lan asko egin beharko duzu datorren astean, baina fruitu onak jasoko dituzu. Gauza onek ahalagina eskatzen du.

### CANCER

Arduratuta eduki zaitu kontu batek eta, konpontzen ez den bitartean, korapiloa izango duzu sabelean. Ondo amaitu!

### LEO

Ea noiz hasten zaren behar den moduan jaten, azken aldian txerrikeriak bakarrik jaten dituzu-eta. Gorputzak eskertuko du.

### VIRGO

Erakargarri sentituko zara eta besteek ere horrela sentituko zaituzte. Zure xarmak inguruak gozotzen eta denak aho zabalik.

### LIBRA

Fede gehiago izan behar duzu aurrera daramatzazun gauzetan. Konfiantzarik ez baduzu, nor izango du zure ordeze?

### SCORPIUS

Ez zaitetz hain zazpikia izan. Zer kostatzen zaizu pixka bat gehiago itxarotea? Jakizu, gainera, presak ez direla oso lagun onak.

### SAGITTARIUS

Egunerokotasunean murgilduta gustora sentitzen zara, baina aspergura puntu batera iritsiko zara. Bilatu beste zeezer!

### CAPRICORNIUS

Gehiegi kezkatzen zara tontakeriengatik. Emaiezu behar duten garrantzia, ez gehiago: estutzeak ez du merezi-eta.


### AQUARIUS

Sagardo Egunaren biharamuna daukazu oraindik? Ederki pasa zenuen, ezin ukatu. Hurrengo edizioa hurbilago duzu orain.

### PISCIS

Konfidantzazko lagun batek huts egingo dizu. Atzetik izango duzu barkamena eske, baina zuk ezikusiena egingo duzu.





## erakusketak

### ✓ Urriaren 13ra arte

**JOSE LUIS IRIGOIENEN** "50 urte argazkigintzan eta gero hau! Euskal argazkilari baten lanak" erakusketa. *Portalean.*

### ✓ Urriaren 31ra arte

**ELISABET EGURENEN** margo erakusketa. *La Taberna de Luis-en (Isasi).*

**JOSE MIGUEL SAN JOSEREN** argazkiak. *El Ambigú kafetegian.*

**MIKOLOGIARI** buruzko argazkiak. *Klub Deportiboan.*

**EIBARKO ARGAZKI RALLYKO** lanen erakusketa (2. zatia). *Portalea tabernan.*

## lehiaketak

### ✓ Urriaren 15era arte

**SANANDRESAK EIBARREN KARTEL LEHIAKETA**  
Lanak aurkeztea eta informazioa: *Pegoran.*

### ✓ Urriaren 27ra arte

**GAZTELEKURAKO MASKOTA LEHIAKETA**  
Lanak aurkeztea eta informazioa: *Indianokua gaztelekuan (Muzategi, 3).*

### ✓ Azaroaren 8ra arte

**XIX. SAN ANDRES BERTSO-PAPER LEHIAKETA.**  
Lanak aurkeztea eta informazioa: *...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11)*

## farmaziak

### ✓ barixakua 11

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

### ✓ zapatua 12

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### ✓ domeka 13

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

### ✓ astelehena 14

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

### ✓ martitzena 15

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

### ✓ eguaztena 16

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

### ✓ eguena 17

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

### ✓ barixakua 18

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

## bekak / diru-laguntzak

### ✓ Urriaren 31ra arte

**UMEAK ESKOLARA ETA DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI**  
Lanak aurkeztea: *Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bulegoan (Untzaga Plaza, 7 - 3. behean). Informazioa: Pegoran.*

				2	7		9	3
8	2			4	6			
							4	
	9	5	4			3		
			3					
		1			8	7	5	
	2							
		8	3			9		1
9	5		8	4				

## SUDOKUA

5	3	1	9	8	4	7	2	6
8	7	6	2	5	1	4	9	3
4	9	2	3	6	7	8	1	5
6	5	9	8	7	3	1	4	2
7	1	4	6	2	9	5	3	8
3	2	8	1	4	5	6	7	9
1	8	5	7	3	2	9	6	4
2	4	7	5	9	6	3	8	1
9	6	3	4	1	8	2	5	7

AURREKOAREN EMAITZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai Polonia Etxebarria kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta aukera ona. 90.000 euro. Tel. 620-099120.
- Pisua salgai Jardinieta kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. 95.000 euro. Tel. 605-703603.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta trasteroa. 130 m<sup>2</sup>. Ilogailua. Guztiz berritua eta argitsua. Tel. 626-203838.

### 1.2. Errentan

- Logela hartuko nuke alokairuan Eibar edo inguruetan. Tel. 628-872295.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. 2-3 logetako. Tel. 634-170819.
- Logela alokatzen dut Bidebarrieta kalean. Tel. 618-354218.
- Pisua alokagai Ipuruan. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Berogailua. Sartzeko moduan. Tel. 696-045050.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Juan Gisasola kalean (epaitegia). 21 m<sup>2</sup>. Tel. 657-779650.
- Lokala erosiko nuke (50 metrokoa edo handiagoa) Eibar edo inguruan. Ura, elektrizitatea eta bainuarekin (jartzeko aukerarekin). Kontutan izango da terenoa, eskaparetea eta bizigarritasuna. Merke. Tel. 665-732640.

### 3.2. Errentan

- Lokala alokagai Egigurentarren plazan. Gazteentzat aproposa. Prezio onean. Deitu eguerdian. Tel. 943-701394.
- Lokala alokagai Pagaegi kalean. 65 m<sup>2</sup> eta 4'5 metroko altuera. Negoziorako aproposa. 375 euro hilean, gastuak aparte. Aparkalekua alboan. Aukera ona! Tel. 600-946854.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Orduka. Tel. 602-022174.
- Eibarko neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Tel. 656-760716.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 632-220461.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-064608.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Tel. 639-962219.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta laguntzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarrera edo sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
- Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-302237.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 662-099453.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garaje, taberna edo igerilekuan garbiketa/mantenimendu lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 686-052084.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 669-311385.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 686-052084.
- Mutila eskaintzen da hainbat arlotako mantenimendu lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 677-860971.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 632-956548.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-054894.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 679-946934.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 943-254903.
- Neska euskalduna eskaintzen da ile-apaindegi batean lan egiteko. 12 urteko esperientzia. Tel. 610-096417. Nerea.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 632-035709.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 662-012834.
- Neska eskaintzen da etxeak eta pegorak garbitzeko. Tel. 628-872295.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. 3 urteko esperientzia. Tel. 943-530679 eta 633-781038.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Etxean edo ospitalean. Tel. 686-265293.
- Mutila eskaintzen da mekanikari jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 634-851205.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldean laguntzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 687-610998.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653-075865.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.
- Irakasle ikasketetako 4. mailako ikaslea eskaintzen da goizetan haurrak esnatu, gosaria eman eta eskolara eramateko. Tel. 634-430647.
- Neska arduratsua eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 636-423493.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 672-076852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Tel. 600-332954.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. 15 urteko esperientzia. Tel. 680-463892.

### 4.2. Langile bila

- Pertsona arduratsua behar da raskak, luzapenak eta postizoak egiteko Eibarko ileapaindegi batean. Girona. Tel. 678-674250.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Ingeleseko klaseak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketa ofizialeterako prestakuntza. Tel. 652-763264.
- Arte Ederretan lizentziatutako neska euskaldunak marrazketa eta margolaritza klaseak ematen ditu. Baita 1. eta 2. Hezkuntzako errefortzu-klaseak ere. Tel. 696-747532.
- Mutil euskaldun tituludunak ingelesezko partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Merke. Tel. 690-025579.
- Arkitekto euskalduna eskaintzen da DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasgai tekniko-zientifikoak emateko. Esperientzia. Tel. 615-704540.
- Ekonomiketan lizentziatua eskaintzen da Matematikak, Kontabilitatea eta Finantza-Matematiketako partikularrak emateko. Tel. 657-771496.
- Ingeniaritza tituludunak klase partikularrak ematen ditu. LHtik Batxilergora arte, Heziketa Zikloak eta unibertsitatekoak. Talde txikiak. Tel. 669-622642. Mireia.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. Tel. 685-739709.
- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle truke eta azterketen prestaketa. EOI. Tel. 670-793312.
- Azken kurtsoko Pedagogiako ikasle euskalduna eskaintzen da klase partikularrak eta ikasketa-teknikak emateko. Tel. 676894791.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Aspes NA 383CS garbigailua salgai. Goiko karga, 5 kg. eta 800 r.p.m. Erabili gabe. 80 euro. Tel. 652-730323.
- Bugaboo markako aulkierendako patinetea erosiko nuke. Tel. 666-769414.
- Zuhaitz itxurako zintzilikario dekoratiboa salgai. Prezioa adosteko. Tel. 660-840246.
- Idazmahaila salgai. Poliplus silla, mahai-gaineko lanpara eta osagarriekin. Erabili gabe. Merke. Tel. 943-120308.

### 6.2. Eman

- Txakurkumeak oparitzen dira. Tel. 685-739709.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Bi zintzilikario galdu nituen orain dela hamar bat egun: bata eskorpioiarekin eta bestea aingura, gurutzea eta bihotzarekin. Tel. 943-702247.

### 6.4. Bestelakoak

- Taxi-lizentzia salgai. Ibilgailu eta bezero-karterarekin. Atenditzeko modurik ez izateagatik. Tel. 630-884181.



**Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa**  
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-  
Telefona: 943 25 61 00

# POLIKLINICA GIPUZKOA

## GINEKOLOGIA NERABEENTZAT Gipuzkoako Polik- linikaren Osasun-Ikaskgelan

Telefona: **943 00 28 00**

[www.policlinicagipuzkoa.com](http://www.policlinicagipuzkoa.com)



**Leire  
Viguri  
DOKTOREA**

**Giza Papilomaren Birusa eta cervix-eko minbizia izango dira Leire Viguri ginekologoak Gipuzkoako Poliklinikaren Osasun-ikaskgelan jorratuko dituen gaitako batzuk. Urriaren 16an, eguaztena, izango da, arratsaldeko 19.30etatik aurrera Eibarko Portalea Kultur etxean. Sarrera libre da, aforoa bete arte.**

**Ginekologia nerabeentzat gaiari helduko diote urriaren 16an, asteazkena, Gipuzkoako Poliklinikaren Osasun-ikaskgelan, Eibarren, arratsaldeko 19.30etatik aurrera.** Leire Viguri ginekologoak hainbat gai jorratuko ditu, besteak beste metodo antisorgailuak, nahi gabeko haurduntza, giza papilomaren birusa, cervix-eko minbizia eta zitologia bidezko diagnostiko goiztiarra. Aldi berean, hitzaldira doazenek zalantzak eta kezak argitu ahal izango dituzte, emakume askok zalantzak izaten dituztelako ginekologoarengana lehen aldiz doazenean.

Nerabeen artean patologiarik ohikoenak hilerokoan irregulartasunak, kisteak obarioetan, sexu-transmisiozko infekzioak eta Giza Papilomaren Birusak eragindako aldaketa zitologikoak izaten dira; ez dira larriak garaiz antzeman eta azkar tratatzen badira.

*“Minbizia izateko arrisku baxuko emakumeek, hau da, familian jatorri ginekologikoa duten minbizi-aurrekaririk ez dutenek, harreman sexualak hasi eta handik urtebetera joan beharko lukete ginekologoarengana”,*

azaldu du Leire Vigurik. Lehen hitzordu horren helburua *“umetoki-lepoko minbiziaren diagnostiko goiztiarrarekin hasi eta metodo antisorgailua planifikatzea da”.*

Era berean, Leirek adierazi du, *“harreman sexualak hasi ez dituzten emakumeak eta sintomarik ez dutenak, 25 urtetik aurrera hasi beharko lirateke ginekologoarengana joaten”.* Izan ere, *“giza papilomaren birusa (cervix-eko minbiziaren eragilea) harreman sexualen bitartez kutsatzen denez, emakume horiei zitologia egitea ez da beharrezkoa, baina bestelako arazoak ager daitezke, hala nola, kisteak obarioetan”.*

Ginekologoarekin lehen hitzorduaren aurrean nerabeek izaten duten beldurrari dagokionez, Vigurik gogoratzen du azterketan titimieketa eta miaketa ginekologikoa, zitologia eta ekografia transbagninala egiten dela. Pazienteez egiten dituzten galderi dagokienez, *“ohikoenak hilerokoaren irregulartasuna eta eskura dauden metodo antisorgailu ezberdinen inguruak”* izaten direla adierazi du Vigurik.

**Nerabeen artean patologiarik ohikoenak irregulartasunak hilerokoan, kisteak obarioetan, sexu-transmisiozko infekzioak eta Giza Papilomaren Birusak eragindako aldaketak dira**

**OSASUN  
IKASGELAK**  
POLICLINICA GIPUZKOA



**“NERABEENTZAKO  
GINEKOLOGIA.  
GALDEZERA AUSARTZEN  
EZ ZAREN ETA JAKIN BE-  
HAR DUZUN GUZTIA”**



**DATA** **ORDUA**  
**Urriaren 16an** **19.30 h**  
**TOPALEKUA**  
**Eibarko Portalea** **SARRERA**  
**Udal Kultur Etxea** **DOAN**



POLICLINICA GIPUZKOA

[www.policlinicagipuzkoa.com](http://www.policlinicagipuzkoa.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

**Antonio Murillo doktorea**

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

**Ainhoa Zulueta doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

**Susana Sierra doktorea**

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

**Maitane G. Iñiguez doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPEDIATRIA

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera

**08.00 - 22.00**

Zapatuetan

**10.00 - 14.00**

**IRAZABAL HORTZ-KLINIKA**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com) - [info@clinicairazabal.com](mailto:info@clinicairazabal.com)

